



> Belarrondokoak eta tartakadak



NAIZ+

Damien Tareli, hauteskunde ekitaldi batean Emmanuel Macroni zaplaztekoa eman zion gizonari, 18 hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote, nahiz eta Macronek ez zuen salaketarik jarri; eta horietatik lau igaroko



ditu kartzelan. Frantses Estatuan bada idatzi gabeko arau bat, eta bertako agintariek, hari jarraituz, ez dituzte horrelako ekintzak salatzzen, nolabait, beren karguari dagozkiola ulertuta.

Behin, Nicolas Sarkozy ez zuen ohitura hori bete. 2011n, Braxen, ukabilkada bat eman nahi zion gizon batek astindu egin zuen eta sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten. Nahiko kritikatu izan zen horregatik. Manuel Valls Barne ministro ohia ere esku-zarta bat eman zion eskuin muturreko gazte batek, eta hiru hilabeteko zigorra ezarri zioten. Gertaera horiek gogora ekarri dizkiote Aritz Intxustari Nafarroan AHTren aurkako ekin-tzaile batzuek Yolanda Barcina presidenteari jaurtitako hiru tartak. Barcinak salaketa jartzeaz gain, Foru Gobernuaren zerbitzu juridikoak erabili zituen “tartalarientzat” 6 eta 9 urte bi-tarteko zigorrak eskatzeko. Haien aurkako auzia Auzitegi Nazonalean amaitu zen. Epai- ketan, Barcinak esan zuen tar- takadek min eman ziotela, tar- tetan erabilitako merengea, frantsesa zenez, gogorragoa baitzen. Hiru tartak Iruñean erosi zituzten, ordea. Azkenean, Auzitegiak bi urte- ko kartzela zigorra ezarri zien hiru “tartalariei”.



> Arroz soro txinatarak, obra ikusgarrietarako mihise

Beste urte batez, artelan erral- doiak “marraztu” dituzte Shenyango nekazariak Txinako Liaoning probintziaren ipar-ekialdeko arroz soroetan. Txinako Alderdi Komunista- ren mendeurrenaren oroitzapenezko irudi batetik, jainko baten irudikapenera, gazte tal- de batetik pasatuz. Horiek dira Txinako nekazariak Shenyang-



geko arroz soroetan “marraz- tu” dituzten artelanak. Arroz soroak mihise gisa erabiltzea turismoa sustatzeko modu bihurtu da urteen pode- rior ez, horrela, inguruko ne- kazarien diru sarrerak handitu egin dira. Marrazki horiek egiteko as- kotariko arroz motak erabil- tzen dituzte.



> On Zientzia bideo lehiaketa: etorkizuna, ibuprofenoa...

Elhuyarrek eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) antolatutako On Zientzia lehiaketak zientzia eta teknologiari buruzko bideo laburrak eta originalak saritzen ditu. Tabakaleran banatu zituen asteartean azken edizio-ko sariak. “Deepfake, etorkizuna atarian” eta “¿Por qué no podemos tomar un ibuprofeno cada 4 horas pero sí alternarlo con paracetamol?” lanek



partekatu dute sari nagusia. Gazte Saria, berriz, Toki-Alai ikastetxeko ikasleen “Aurrera goaz” bideoarentzat izan da. Hamaikagarren edizio hone-tan 86 lan jaso dituzte, euska-raz, gaztelaniaz eta ingelesez, Euskal Herrikoak gehienak, bai-na baita Alemaniatik, Erresuma Batutik, Mexikotik edo Perutik heldutakoak ere. Guztiak www.onzientzia.tv lehiaketaren webgunean daude ikusgai.

> Adimen desgaitasuna dutenentzako udako programa

Gorabide adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkar-teak urteroko udako programa plazaratu du, 239 plaza eskaini-ko dituen. Errutinatik atera eta elkarren arteko harremanetan sakondu nahi duen ekimenak astebeteko oporraldiak eta egu-neko txangoak prestatu ditu, osasun neurrietara egokituta. Astebeteko oporraldiei dago-kienez, Bizkaiko hainbat esta-blezimendutan 119 leku eskai-niko dituzte 15 txandatan banatuta. Egun osoko txanden



kasuan, 120 leku aurreikusi di-tuzte eta eguneko hogeitxan-datan egingo dituzte. Udako programa urte osoan zehar konpromiso eta inplika-zio handia erakusten duten 72 boluntarioren laguntzarekin egingo da. Bizkaiko hainbat he-rri dira oporraldietarako auke-ratutako helmugak, aterpetxe eta hoteletan, eta prestatu di-tuzten jardueren artean daude zentroetara bisitaldiak, hondar-tzak, igerilekuak, zinema, ibilal-diak, itsas zeharkaldiak...



> «Eskolak naturan eta natura eskolan»

Gipuzkoako 23 ikastetxek hartu dute parte «Eskolak na-turan, natura eskola» proiektuan, Txoribox eta Eskola Ur-maelen Sarea ekimenekin lotutako jarduerak aurrera eramanez. Aranzadik bultza-tzen duen egitasmo sozialak hezkuntza, auzolana eta bio-aniztasunaren kontserbazioa uztartzen ditu, eta laster ma-



terial didaktiko gehiago sor-tuko du. Proiektuaren helburu nagu-sia bioaniztasunaren kontser-bazioan aurrerapausoak ema-tea da, ekimenak eskola ingurunera erakarriz, «ikas-leek beren eguneroko bizitzan integratu dezaten eta irakas-leek tresna didaktiko moduan erabil dezaten».